# josé agustín gurrutxaga

## “ikuspuntuak”
## “puntos de vista”

BERGARA 2014. AROZTEGI ARETOA

**Argazki erakusketa** • Exposición de fotografía

**Urriaren 24tik azaroaren 9ra** • Del 24 de octubre al 9 de noviembre



Gorka Aranzábal

ERAKUSKETA EXPOSICIÓN
José Agustín Gurrutxaga

ANTOLATZAILEA ORGANIZADOR
Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN
Bergarako Udala Ayuntamiento de Bergara

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL
SS-1215-2014

# IKUSPUNTUAK

Inguratzen gaituen guztiari buruz gure ikuspuntu partikularra dugu, eta ikuspuntu hauek markatu egiten gaituzte, gure bizitzan zehar egiten dugun bidea eratzen dute.

Duela 30 urte baino gehiago hasi nintzen argazkigintzan; eta denborarekin, zaletasun bezala hasi zena pasio bihurtu eta, beste gauza batzuen artean, argazkigintzarekin joan naiz pixkanaka-pixkanaka nire bide hau betetzen.

Argazkigintza bizitza ikusteko modu bat da; errealitatea, paisaia, mendia, modu erabat pertsonalean. Gure makinarekin, urteetan zehar, gure joerak markatu ditzakegu, gauzak ulertzeko dugun modua, etab.; gure bizitzako liburu bat irudiez idaztea bezala da. Zalantzarik gabe, irudi fotografikoek beti esaten dute zerbait argazkiak egin dituzten pertsonei buruz.

Gehien landu ditudan argazki-gaiak mendia eta natura izan dira. Pirinioak, Dolomitak, Alpeak, gure mendiak eta, batez ere, Urbia. Bertan ordu asko pasatu ditut, haizete, laino, hotz eta elurte asko, batez ere nire lagun Benitorekin, nolabait bereizi eta ondo definitutako bide batean markatu gaituen argazki-mota hori eginez. Baina urteek ez dute barkatzen, eta joera pixkanaka aldatzen doa. Mendia hor dago, baina gero eta urrunago ikusten dut, bertara iristea gehiago kostatzen da. Ez da ahazten, baina...

Natura, kirola, erretratuak... Honek ez du amaierarik, gaia luzerako doa.

Nabaria da mendiko lagunik gabe ezin izango nituzkeela egin atera ditudan argazkietako asko. Nire esker ona guztiei, hainbeste urtetan zehar ni jasateko gai izan direlako: "Apur bat astiroago, hemen jarri, apur bat harago, ertz horretara joan zaitez, etab. etab."; haien laguntzarik gabe nire argazkietako asko eta asko ezinezkoak ziratekeen.

Erakusgai ditudan argazki hauetako batzuetan agertzen dira, baina hemendik aurrera ez naiz ibiliko *kaparrada ematen*, edo gutxienez ez lehen bezala. Bihotz bihotzez eskerrik asko.

Nire mendi-argazkietan horrela gertatu dena gai libreko argazkietara ere eramaten ari naiz poliki-poliki. Gustatzen zait, adiskidetasuna ez bada, behintzat harreman atsegina izatea erretratatzen ditudan pertsonekin. Haiei ere eskerrak.

Mundutxo honetan gabiltzanok atsegin dugu jendeari gure argazkiak gustatzea. Garrantzitsuena guri gustatzea bada ere, oso atsegina da beste pertsona batzuek ere baloratzen dituztela jakitea; eta uste dut portzentaje onargarri batean lortu dudala, urte hauetan zehar lortutako sari-kopuruak erakusten didan neurrian. Sari horietako batzuk aretoan bertan ikus daitezke.

Ezin dut alde batera utzi argazkigintzak eman didan zerbait, oso garrantzitsua: "LAGUNAK".

"Argazkigintzaren bitartez adiskidetasunera", esaldi hori Gipuzkoako Argazkilari Elkartean dago. Eta horrela da, nik neuk egiaztatu ahal izan dudan moduan. Besterik ezean ere, horregatik bakarrik errentagarria da makinarekin *kaparrada ematen* ibiltzea.

Zuei ere argazkiak gustatzea espero dut.

# PUNTOS DE VISTA

Sobre todo lo que nos rodea tenemos nuestro particular punto de vista, y estos puntos de vista nos marcan, hacen un camino que recorremos a lo largo de nuestra vida.

Hace más de treinta años que empecé con la fotografía, y con el paso del tiempo lo que empezó como afición se ha convertido en pasión; y es con ella, entre otras cosas, con la que poco a poco he ido rellenando este camino.

La fotografía es una forma de ver la vida, la realidad, el paisaje, la montaña, de una manera total y absolutamente personal. Podemos con nuestra máquina y a lo largo de los años marcar nuestras tendencias, gustos, la manera de entender las cosas, etc. Es como escribir un libro de nuestra vida con imágenes. Las imágenes fotográficas siempre dicen algo de las personas que las hacen, sin duda.

Montaña y naturaleza han sido mayoritariamente los temas de las fotografías que he realizado. Pirineos, Dolomitas, Alpes, nuestras montañas, y sobre todo Urbía, donde he pasado muchas horas, ventiscas, nieblas, fríos y nevadas, principalmente con mi amigo Benito, haciendo ese tipo de fotografías que en cierto modo nos ha caracterizado y que nos ha marcado en un camino bien definido. Pero el paso de los años no perdona, y la tendencia está poco a poco cambiando. La montaña está ahí, pero cada vez la veo más lejos, cuesta más llegar a ella. No se olvida, pero...

Naturaleza, deporte, retratos... Esto no tiene fin, hay tema para rato.

Es evidente que sin compañeros en el monte no hubiera podido realizar muchas de las fotografías que he hecho. Mi agradecimiento a todos ellos, que han sido capaces de aguantarme durante tantos años: "un poco más despacio, ponte aquí, un poco más allá, vete a esa arista, etc., etc."; sin su colaboración muchas de mis fotos hubieran sido imposibles.

En algunas de las fotografías que expongo están ellos; ya no les daré la pelmada, o al menos no como antes. Gracias de todo corazón.

Esto que en la fotografía de montaña ha sido un hecho, también lo estoy trasladando poco a poco a mis fotografías de tema libre. Me gusta entablar, sino una amistad, sí una relación agradable con las personas a las que fotografío. Gracias también a ellas.

A los que estamos en este mundillo nos agrada que gusten las fotos que hacemos. Lo más importante es que nos gusten a nosotros, pero es muy agradable saber que también otras personas las valoran; y creo que en un porcentaje aceptable lo he logrado, en la medida que me lo indica la cantidad de premios obtenidos a lo largo de estos años. Algunos de ellos se pueden ver en la sala.

No puedo dejar de lado algo muy importante que me ha dado la fotografía: "AMIGOS".

*A la amistad por la fotografía* es una frase que reza en la Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa. Así es, y lo he podido comprobar personalmente. Sólo por eso ya es rentable andar con la máquina como coloquialmente se dice "dando la brasa".

Espero que os gusten las fotos



ANAYETEKO BIDEAN



BATALLANCE INGURUAN



ESKIADOREAK



GAILUR ONDOAN



GORBEIA IGOTZEN



HAIZEAREN KONTRA



IZOTZETAN



LAINO ARTEAN



ARGIAK ETA ITZALAK • *LUCES Y SOMBRAS*



PETIT VIGNEMALEKO ARISTAN



PETIT VIGNEMALEKO GAILURREAN



TRINEOA



TXAKURRAK ETA ESKIAK



UNAI



URBIAN ESKIEKIN



EGUNSENTIKO ARGIAK



ELURRA PAGO ARTEAN



FORMAK



KOLOREAK



LAINOA ETA IZOTZA






NATURAKO ARGAZKIAK



NEGUA URBIAN



UDAZKENA



BORROKAN



IGERIAN



IOSU



ITSASOAN









KIROLAK



PATINATZEN



MITXOLETAK • *ABABOLES*



ESKAILERAN



GOIZEKO LAINOAK



KOLOREAK



LA ABUELA



NESKATILAK



HONDARTZAN

# josé agustín gurrutxaga

## “ikuspuntuak” • “puntos de vista”



Ordutegia:

| | |
|---|---|
| asteartetik ostiralera | 18:00 - 20:30 |
| larunbatak | 12:00 - 14:00 |
| | 18:00 - 20:30 |
| igande eta jaiegunak | 12:00 - 14:00 |

AROZTEGI
ARETOA

Bergarako
Udala

Barrenkale 7, 20570 BERGARA • Tel.: 943 77 91 59 • e - mail: kultura@bergara.net